

**SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA S.A. ERAKUNDERAKO INFORMAZIOKO ETA HARRERAKO AGENTEAREN LAN-POLTSA SORTZEKO HAUTAKETA PROZESUA, 2024KO EKAINETIK URRIRA BITARTEKO ENPLEGU EGONKORRAREN GORABEHEREK SORTUTAKO ALDI BATERAKO LANGILE-BEHARRAK BETETZEKO.**

- **DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA.**
- **1.FASEA EGITEKO DEIALDIA (EZAGUTZEN ANALISIA ETA GAITASUNEN ANALISIA).**
- **2.FASEA (ANALISI PERTSONALA) ETA 3. FASEA (MERITUEN BALORAZIOA) EGITEKO DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Goian aipatutako hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta deialdiko bigarren baldintzaren arabera aztertu ondoren, Hautaketa Batzordeak,

EBAZTEN DU

**Lehenengoa.- Hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda** onartu eta argitaratzea, baztertzeko arrazoiak zehaztuz (1. ERANSKINA).

**Bigarrena.-** Baztertuta gelditu diren hautagaiek egokitzat hartzen dituzten alegazioak edo okerren zuzenketak egin ahal izango dituzte, 2 egun balioduneko epean, zerrenda hau argitaratzen den eguna barne hartuta (2024ko maiatzaren 13a eta 14a). Horretarako, [sansebastianturismoa@oteic.com](mailto:sansebastianturismoa@oteic.com) helbidera bidali beharko dute San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa, SAREN web orrian horretarako dagoen inprimakia. Epea maiatzaren 14an amaituko da, 14:00etan.

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko da, 2024ko maiatzaren 15ean, ziurrenik.

Edozein arrazoiengatik alegazioak ez badira ebatzi proben lehenengo jardunaldia baino lehen, hautagaiek proba horretan parte hartu ahal izango dute, baina baldintza etengarri batekin: alegazioaren ebazpenaren ondorioz beren hautagaitza azkenean onartzen bada soilik ebaluatuko da proba hori.

**Hirugarrena.- Hautaketa-prozesuaren baldintzetan xedatutakoaren arabera, onartutako hautagaiei honako proba hauek egiteko deia egiten zaie:**

- **PROBAK:**

1. FASEA – Ezagutzen analisia eta Gaitasunen analisia.

Oharra: Jardunaldi berean 2. Fasearen barruan baloratuko den proba bat egingo da.

- **EGUNA ETA ORDUA:**

**2024ko maiatzaren 17an, ostirala, 15:30etan** (gutxi gorabehera 2 ordu eta erdi-3 orduko iraupena izango du).

- **LEKUA:**

Ignacio María Barriola zentroa (EHUko IKASGELA), Elhuyar plaza 1, 20018 - Donostia.

Gela 3.02 (3.Solairua)

Hautagaiei dei bakarra egiten zaie. Pertsona bat dei egin zaion unean edozein probatara aurkeztu ez bada, bertan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea bertan behera geratuko da automatikoki, eta, beraz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Izangaiek NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren originala aurkeztu beharko dute. Agiri horietakoren bat aurkeztu ez badute, ezin izango dituzte probak egin.

**Laugarrena.- 2. FASEA – ANALISI PERTSONALA EGITEKO DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Hautaketa-prozesuan azkenean onartutako hautagaitza kopurua 25etik beherakoa bada, eta, ondorioz, ez bada beharrezkoa Analisi Pertsonalaren 2. fasean sartzeko 1. fasean lortutako 25 puntuazio handienak eteteko irizpidea aplikatzea, 2. fasea egiten aurrera egin ahal izango da, aurreko fasea ebatzi arte itxaron gabe.

**Kasu horretan, 1. Fasera aurkeztu diren hautagaiei deituko zaie, 2. Fasea – Analisi Pertsonala egiteko**, baina 1. Faseko puntuazio-irizpidea gaindituz gero bakarrik izango du balioa.

**Fase hau 2024ko maiatzaren 22, 23 eta 24an egingo da, goizez, OTEIC TALDEAREN bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia), maiatzaren 20an argitaratuko den ordenaren arabera (deialdiaren eguna eta ordua).**

**OHARRA:** Bi baldintza hauek betetzen dituzten hautagaiek proba online egiteko eskatu ahal izango dute:

- Deialdi honen aurreko bi urteetan Donostia Turismoan lan egin izana (2022/04/28tik 2024/04/28ra),  
Eta,
- 500 km-tik gorako distantziara egotea proba egiteko deitutako egunean.

Interesdunek 2024ko maiatzaren 21eko 14:00ak baino lehen egin beharko dute eskaera, helbide honetara zuzenduta: [sansebastianturismoa@oteic.com](mailto:sansebastianturismoa@oteic.com). Distantzia baldintzari buruzko egiaztagiria erantsi beharko dira.

Kasu bakoitza aztertu ondoren, interesdunekin harremanetan jarriko da haien eskaerari erantzuteko eta, hala badagokio, proba online antolatzeko. Nolanahi ere, proba deitutako egunean eta orduan egingo da. Halaber, bosgarren puntuari adierazten den dokumentazioa egiaztatzeke nola jokatu behar den ere jakinaraziko da.

### **Bosgarrena.- 3. FASEA - MERITUEN BALORAZIOA**

**2. Fasea (Analisi pertsonala) egitera deituak izan diren egunean, honako ziurtagiri eta/edo egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dituzte hautagaiek:**

- **Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak:**  
**Eskatutako prestakuntza akademikoari eta hizkuntzei buruzko jatorrizko dokumentazioa eta fotokopiak aurkeztu behar dira.**
- **3. Fasea – Merituen balorazioa, merituen alde aurretik aurkeztu behar dira parte hartzeko eskabide orrian:**  
**Jatorrizko dokumentazioa eta fotokopia aurkeztuko dira.**

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, eta honela egiaztatuko dira:

- A) Atzerriko hizkuntzak jakitea, gutxienez B2 mailako ezagutzaren ziurtagiri ofiziala edo homologagarria aurkeztu beharko da.
- B) Antzeko zereginetan esperientzia izatea. Lan bizitzari buruzko txostena, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emana, edo kontratuaren hasiera eta amaiera data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat. Lan kontratuak ere aurkez daitezke, baldin eta kontratuaren edukitik ondorioztatu daitezke zer lan egin den, edo enpresaren beste ziurtagiri batzuk, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak zehazten dituztenak.

- C) Lanpostuarekin zerikusia duten titulazio akademikoak. Ikastaroak egiaztatzen dituzten agiriek ikastaroaren iraupena (orduak edo kredituak) zehaztu beharko dute, bai eta edukia ere, ikastaroaren izenburutik ezin bada ondorioz atera.

Hautaketa prozesuaren garapenari buruzko informazio guztia <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/kontratazioa> helbidean argitaratuko da, jakinarazpen ondorioetarako.

Stua.: Hautaketa Batzordea  
Donostia, 2024ko maiatzak 13

## 1.ERANSKINA:

Hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

---

### ONARTUTAKO HAUTAGAIAK:

15379003F  
34095581J  
34102122E  
44165418J  
44348893V  
44570344R  
44570830G  
45199609D  
72471340L  
72472798M  
72473662H  
72512622Q  
72516854Q  
72524460D  
72535584R  
72558803Z  
72828857R  
72836604C  
X0629173P

### BAZTERTUTAKO HAUTAGAIAK:

NAN	BAZTERTZEKO ARRAZOIAK
15245454L	2
44170727D	1
54006938V	1 / 2 / 3
72466292P	1
72471339H	1
72535740L	3
72597713F	2
72599817H	3
73034527M	1
73217655F	1
73281274P	1

### BAZTERTZEKO ARRAZOIAK:

- (1) Ez du betetzen bigarren baldintzako E.1 atalean eskatzen den prestakuntza-baldintza (maila akademikoa eta/edo espezialitatea).
- (2) Ez du betetzen bigarren baldintzako E.2 atalean eskatzen den Euskara B2 mailako ezagutzaren ziurtagiri ofizialaren baldintza.
- (3) Ez du betetzen bigarren baldintzako E.2 atalean eskatzen den Ingeles B2 mailako ezagutzaren ziurtagiri ofizialaren baldintza.